

EKONOMIA FEMINISTARI BURUZKO VII KONGRESUA
Bilbo, 2021eko uztailaren 1etik 3ra
BIZITZAREN SAREGILEAK
Ekonomiaren oinarriak astintzeko sare feministak

KOMUNIKAZIOAK, POSTERRAK, TAILERRAK ETA EZTABAIDAK
AURKEZTEKO OINARRIAK

Oinarri hauen helburua, Ekonomia Feministari buruzko VII. Kongresuan aurkeztuko diren komunikazioen (ahozkoak eta posterrak), tailerren eta eztabaiden aurkezpena erraztea da. Aldi berean, aurkeztuko diren lanen nolabaiteko berdintasun formala bilatu nahi da eta horrela, kongresuko lau ardatz tematikoen ardura duten batzordeen balorazio lana bizkortuko da.

Pandemia dela eta, VII. Kongresua ezin da aurrez aurre egin, nahi bezala. Ahal den neurrian, hitzaldi nagusiak modu bimodalean egingo dira (aurrez aurre eta online aldi berean). Nolanahi ere, deialdi honen xede diren lanak aurkezten dituzten jarduerak modu birtualean egingo dira, kode irekiko eta software libreko plataforma baten bidez. Oinarri hauek jarduerak online aurkeztu eta egitea ahalbidetzeko pentsatuta daude.

1- FORMATUAK ETA GAIAK

Lanak formatu desberdinetan aurkeztu daitezke, hori bai, beti gai konkretu baten inguruan: komunikazioak (ahozkoak eta posterrak), tailerrak eta eztabaidarako proposamenak. Era berean, modalitate miszelaneoak eta sormenezkoak aurkezteko tartea zabaltzen da. Kongresuak ondorengo lau ardatz tematiko hauen inguruko proposamenak onartuko ditu:

- Orainaren eta etorkizunaren artean
- Adi zaintzekin!
- Politika publikoak garai nahasietan
- Bizitzak erdigunean: zein bizitza eta zein erdigune?

Komunikazioak, tailerrak edota eztabaida proposamenak bidaltzerakoan, ardatz tematiko bat aukeratu beharko da. Jasotako proposamenen azken kokapena batzorde antolatzaileak erabakiko du. Ardatzez aldatzea erabakiko balu, alde zuzenetik egileekin kontrastatuko luke.

Ardatz bakoitzaren oinarrizko ideiak kongresuaren ardatzei dagokien dokumentuan eta webgunean azalduko dira. Lan ildoak edozein izanda ere, ekarpen guztiek ekonomiaren ikuspegi feminista txertatu beharko dute.

1.1.- AHOZKO KOMUNIKAZIOAK

Komunikazioak ondorengo atalak izango ditu: sarrera, motibazioa edo justifikazioa, helburuak, marko teorikoa, metodologia/prozedura eta erabilitako tresnak, emaitzen inguruko eztabaida, ondorioak eta iturri bibliografikoak.

Testua gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu ahal izango da.

Egitura formala ondorengoa izango da:

Izenburua; egileak (gehienez sei, inisialik gabe, izen osoekin), lan egiten duten erakundea eta jarduera profesionala, posta elektronikoa eta harremanetarako telefonoa.

Ondoren, laburpena jarriko da (gehienez 350 hitz) eta oinarrizko bibliografia. Hitzgakoak edo deskribatzaileak (gehienez bost).

Lan osoetarako arauak honako hauek dira:

- Gehieneko luzera: **7.500 hitz** (bibliografiarik gabe eta taula, grafiko eta irudirik gabe);
- Dokumentua **Word**-en bidali beharko da, ez pdf formatuan;
- Taulek eta irudiek adierazten dutena azaltzeko izenburu egokiak izango dituzte, eta zenbaki arabiarretan zenbatuko dira;
- Erreferentzia bibliografikoak jartzeko **APA** arauak erabiliko dira baina egileak izen osoarekin jarriko dira eta ez inzialekin;
- 2,5 cm-ko marjinak orrialdearen lau aldeetan;
- Lerroarte sinplea eta aurreko eta atzeko tarterik gabea;
- Arial letra 12 tamainakoa;
- Orri-oinetako ohar eta erreferentzia bibliografikoen tamaina 10

1.2.- KOMUNIKAZIOAK POSTER FORMATUAN

Azalpen grafikoan: izenburua tamaina handian idatzita, egilea, lantokia eta harremanetarako helbide elektronikoa sartu. Honez gain, helburuen, metodologiaren eta ondorioen laburpen bat ere gehitu. Testu askorik ez sartzea eta letra txikia ez erabiltzea gomendatzen da.

Posterraren neurriak: gehienez 90 cm-ko zabalera eta 120 cm-ko altuera eta pdf, jpg edo ppt formatuan bidali behar dira, gehienez ere 2M-ko pisuarekin.

Posterra gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu ahal izango da.

1.3- TAILERRAK, EZTABAIDAK ETA BESTE JARDUERAK

Ulertzen dugu, zenbait kideentzat, "kongresuaz" hitz egiteak unibertsitatearen mugetatik oso urrun dagoen zerbaiten itxura izan dezakela. Hala ere, ekonomia feministak harresi horiek gainditu nahi izan ditu beti: pentsamendu ekonomikoaren korrante bat ez ezik, apustu politiko bat ere izan nahi dugu. Hemen denok egon behar dugu, hainbat esparrutakoak: akademia, mugimendu feminista, feminismoak beste gizarte-mugimendu batzuetan, sindikatuak, ESSko erakundeak, GKEak, erakunde publikoak... Horregatik, guztiok sar gaitezkeen espazioak diseinatzeko ahalegina egingo dugu, bai eta kongresua gure lengoia anitzak barneratzen dituzten formatuetara zabaltzeko ere.

Formula hau **kolektibo eta/edo erakundeek** proposatutako gaiei buruz eztabaidatzera eta/edo hausnartzera bideratuta dago, eta ez norbanakoek proposatutakoei buruz. Gainera, espazioa liburuak, bideoak edo interesgarritzat jotzen diren beste baliabide batzuk aurkezteko erabil daiteke, bereziki egiletza

kolektibokoak. Era berean, bestelako proposamen miszelaneo, sortzaile edo artistikoak aurkeztera animatzen zaituztegu, ahal den heinean, online partekatu daitezkeenak.

Ahazko komunikazioen edo posterren formatuan sartzen ez den jardueraren bat aurkeztu nahi baduzue, bidaliezaguzue zuen proposamena (folio baten edo 650 hitzetan), honako hauek kontuan izanik:

- Kolektibo arduraduna eta harremanetarako pertsona (posta elektronikoa)
- Proposatutako jardueraren edukia: izenburua, helburuak, metodologia eta partekatu beharreko materiala (bideoen bat, argitalpenen bat, arte-sorkuntzaren bat edo podcast bat partekatu nahi izanez gero).
- Tailerrak edo eztabaida-mahaiak gehienez bi ordukoak izango dira.

2- AURKEZPENA ETA DEFENTSA

Komunikazioen eta posterren aurkezpenak eta defentsak Kongresuko egunetan aurkeztuko dira, programan zehaztutako ordutegian eta espazioetan (proposamenak onartu ostean aurkezleei jakinaraziko zaie).

Kongresua nagusiki online izango denez, pasahitz bat emango zaie izena eman duten pertsonari, komunikazioak eta posterrak aurkeztu eta defendatu ahal izateko, bai eta tailerrak eta eztabaidak egin ahal izateko ere.

- **Komunikazioak:** egileek aurkezpenerako eta eztabaidarako denbora mugatua izango dute. Ardatz bakoitza antolatzen duen taldeak erabakiko du nola egituratu saioak edukien arabera, eta alde zuzenetik jakinaraziko die parte hartzen duten pertsonari. Aurkezpena alde zuzenetik erakundera bidaltzea gomendatzen da, edozein bistaratze-arazo saihesteko.
- **Posterrak:** Se habilitará un espacio específico durante del congreso en el que se colgarán los pósteres. Norbaitek argitaratzea nahi ez badu, proposamena bidaltzen duenean adierazi beharko du. Espazio espezifiko bat jarriko da egileei galderak eta iruzkin idatziak egin ahal izateko eta, era berean, egileek erantzun ahal izateko.
- **Tailerrak eta eztabaida-mahaiak:** jarduera horiek gauzatzea proposatu duten kolektiboaren arduradunak izango dira, baina kongresuaren antolaketak ahal duen laguntza guztia eskainiko du jarduerak egiteko. Ardatz bakoitzaren talde antolatzaileak jarduera bakoitzari esleitutako ordu-tartea jakinaraziko du.
- **Beste jarduera batzuk:** ahal den neurrian eta birtualtasunaren baldintzatzailearekin, iristen diren proposamenei lekua egiteko modua bilatuko da (hainbat liburu aurkezteko saioak antolatuz, partekatu nahi diren bideoak, podcast-ak edo sorkuntza artistikoak webguneran zintzilikatuz, etab.), ardatz bakoitzaren talde antolatzailearen eta proposamena egiten duenaren artean adostuz.

3- AUKERAKETA

Lanak hautatzeko, aurkeztutako laburpenak hartuko dira oinarritzat. Ardatz tematiko bakoitzeko Ebaluazio Batzordeak baloratu eta hautatuko ditu, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Edukiaren koherentzia eta egokitasuna Kongresuaren ardatz tematikoekin.
- Gaiaren gaurkotasuna eta garrantzia
- Kontzeptu, metodo eta idazkera argiak
- Genero-ikuspegia.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista.
- Erabilitako iturrien kalitatea (ahozko komunikazio eta posterrak).

Dagokion batzordeak ebaluatu ondoren, onartutako lanen egile nagusiei berrespen-mezu bat bidaliko zaie. Ezarritako epean antolatzaileek ez badute onarpenaren berri ematen, proposamena ez dela aukeratu ulertuko da.

Antolatzaileek onartutako lanak Kongresuaren webgunean argitaratu ahal izango dira, beti ere egileek kontrakoa adierazten ez badute.

EPEAK

- Komunikazioak eta posterrak:
 - o Komunikazioen laburpenak otsailaren 22tik martxoaren 23era bidali ahal izango dira.
 - o Ardatzetako Ebaluazio batzordeek, martxoaren 31ra arte izango dute lanak berrikusteko eta aukeratzeko.
 - o Testu osoak apirilaren 12tik maiatzaren 30ra (23:59 arte) bidali ahal izango dira.
- Tailerrak, eztabaidak eta beste jarduerak:
 - o Proposatutako ahozko komunikazioen eta posterren laburpenak otsailaren 22tik apirilaren 12ra bidali ahal izango dira.
 - o Batzordeek ardatzak berrikusteko eta onartzeko epea: apirilaren 23ra arte.

4- BIDALKETAK

Lanak helbide elektronikoa honetara bidali beharko dira ezarritako epeetan:

comunicaciones@congresodeeconomiafeminista.org

Pertsona bakoitzak ezin izango ditu bi ekarpen baino gehiago aurkeztu (ahozko komunikazio eta/edo poster) Kongresura. Lanen bat aurkezten dutenek Kongresuko lan-ardatzetako batean eman beharko dute izena ezarritako epeetan, eta lanaren defentsa egin ondoren, erakundeak dagokion ziurtagiria emango die. Ziurtagiria bakarrik kongresuan izena eman duten pertsonei emango zaie.

Talde bakoitzak bi ekarpen (tailerrak, eztabaidak edo beste jarduera batzuk) baino ezin izango ditu aurkeztu Kongresuan. Beharrezkoa izango da kolektiboko bi pertsonak gutxienez Kongresuko lan-ardatzetako batean izena ematea ezarritako epeetan, eta erakundeak dagokion ziurtagiria emango die, defentsa

egin ondoren. Kongresuan izena eman duten pertsoneri bakarrik emango zaie ziurtagiria.

Datuak babesteko araudia

3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, honako hau jakinarazten dizugu:

- a. Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna **Ekonomia Feministari buruzko Kongresuko idazkaritza** da (helbidea: Lehendakari Agirre etorbidea, 82)
- b. Ematen dizkiguzun datu pertsonalak beharrezkoak dira Ekonomia Feministari buruzko VII Kongresua antolatzeko eta egiteko, eta ezin izango dira erabili kongresu honi eta bi urtez behin egingo diren hurrengoei buruzko informazioa bidaltzeko eta biltzeko ez bada.
- c. Kongresuko Idazkaritzara (info@congresodeeconomiafeminista.org) jo behar duzu eskubide hauek egikaritzeko: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko ere.